



Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

MAKINERIA BERRIA EROSTEKO AHOLKUAK

O S A L A N

www.osalan.net

- - - - -

2012ko maiatza

Osalaneko teknikari hauek egin:

- Miren Etxebeste Susperregi
- Iñigo Olaciregui Garbizu
- Jesús Ortiz de Urbina Ugarte



AURKEZPENA

Laneko arriskuen prebentzioa enpresa kudeatzeko sistema orokorrean sartzeko beharra ezarri du Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak, oinarritzko beste printzipio batzuen artean. Laneko arriskuak, beraz, enpresaren jarduera guztietan nahiz enpresaren hierarkia-maila guztietan zaindu beharko dira.

Gure enpresetan, badira langileentzako arriskutsuak izan daitezkeen zenbait elementu; erabiltzen dituzten makinak, esaterako. Europako Erkidegoko arauak aplikatzearen ondorioz, ezin ukatzeko eboluzioa izan dute makineria-fabrikatzaileek, are prestazio hobekuntza eta seguruak eskaini baitituzte.

Baina hobekuntza hori erabatekoa izan dadin eta laneko baldintzen gain eragina izan dezan, enpresek beste jarduera osagarri batzuk gauzatu beharko dituzte makineria erosi eta hura langileen esku jartzeko orduan.

Informazio-argitalpen sinple honen bidez, OSALANek laguntza eman nahi die, bereziki, gure enpresa txikiei; hain zuzen, makineria erosteko orduan, alderdi teknikoak, ekonomikoak eta *prebentiboak* kontuan izan behar baitituzte, lan-baldintzen hobekuntza eraginkorra izan dadila lortzeko.

Izaskun Urien Azpitarte
OSALANeko zuzendari nagusia




AURKIBIDEA

1.- Laneko ekipamendu bat erosteko prozesuaren fluxu-diagrama.....	3
2.- Laneko ekipamendua (makina) erosteko erabakia hartzea.....	4
3.- Produktzio-ezaugarriak eta kokalekua.....	5
4.- Laneko arriskuen prebentziorako antolakuntzari (LAPA) eta prebentzio-delegatuei kontsultatzea	6
5.- Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko baldintza gehigarriak.....	6
6.- Behin betiko baldintza-agiria.....	7
7.- Laneko ekipamendua (makina) hautatzea.....	8
8.- Prebentzioko delegatuei jakinaraztea	8
9.- Laneko ekipamenduaren (makina) kokalekua prestatzea.....	8
10.- Laneko ekipamendua (makina) hartzea	9
11.- Laneko ekipamenduaren (makina) hasierako egiaztapena	9
12.- Arriskuen ebaluazioa egitea. Prestakuntza eta informazioa.....	10
13.- Makina erabiltzen hastea	11



1.- LANEKO EKIPAMENDU BAT EROSTEKO PROZESUAREN FLUXU-DIAGRAMA





2.- LANEKO EKIPAMENDUA (MAKINA) EROSTEKO ERABAKIA HARTZEA

Enpresaburuak hartu du laneko ekipamendua (makina) erosteko erabakia. Bere produkzio-beharretara ondoen egokitzen den makina bilatuko du merkatuan; ziur aski, prezio-kalitate erlaziorik onena duena.

Makinaren produkzio-ezaugarriak kontuan hartzeaz gain, fabrikatzaileak edo bere ordezkariak eskaintzen diona ere kontuan hartuko du, honi dagokionez:

- Makina lantokira eramatea, muntatzea eta lehenengoz erabiltzeko prest uztea.
- Prestakuntza ematea, funtzionamendua ezagutzeko.
- Laguntza teknikoa izateko aukera, matxuren edo funtzionamenduaren inguruko zalantzarik izanez gero.
- Makinaren CE markaren arduraduna izendatzea, baita onespenderazpena eta jarraibide eskuliburua ematea ere (hainbat fabrikatzailek egindako piezez osatutako makina konplexua bada).





3.- PRODUKZIO-EZAUGARRIAK ETA KOKALEKUA

Enpresaburuak, erosi nahi duen laneko ekipamenduaren produkzio-ezaugarriak aztertzean, kontuan hartuko ditu laneko segurtasunari eta osasunari eragin diezaieketenak. Besteak beste, honako hauek hartuko ditu kontuan eta baloratuko ditu:

- Energia elikatzeko behar diren iturriak (elektrikoa, pneumatikoa, gasa...).
- Hondakinen ezabatzea.
- Aireztatze orokorra edota tokikoa izateko beharra.
- Zarata, bibrazioak, erradiazioak.
- Kutsatzaile kimikoak jaulkitzea.
- Elikadura eta produktuak edo piezak ateratzea (lehengaiak, amaitutako produktuak).
- Produktuak edo piezak manipulatzeko elementu osagarrien beharra (garabiak, eskorga motordunak, eskuzko transpaletak eta abar).
- Makinaren ataletara iristeko eta bertan jarduteko baliabideak, bera doitzeko, mantentzeko eta ekoizteko.

Horretaz gainera, enpresaburuak kontuan hartuko du non jarriko duen laneko ekipamendua. Besteak beste, behar hauek baloratuko ditu:

- Beharrezko esparru fisikoa (ekoizpenean aritzeko, mantentze-lanetarako edota konponketak egiteko).
- Mantentze-elementuren beharrik dagoen, makina kokatzeko eta muntatzeko.
- Laneko ekipamenduaren (makina) kokalekura sartzeko bideak.
- Makina zimendatzeko edota ainguratzeko beharra.
- Argiztapena.
- Ondoko lanpostuetan nola eragin dezakeen.



Era berean, enpresaburuak kontuan izan beharko du gaitzuntza berezirik behar den makina erabiltzeko eta, hala izanez gero, aurreikusitako.



4.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ANTOLAKUNTZARI (LAPA) ETA PREBENTZIO-DELEGATUEI KONTSULTATZEA



Aplika dakizkiekeen segurtasun-arauak ezinbestean bete behar dituzte erosiko diren laneko ekipamenduek (makinak). Enpresaburuak ez baditu arau guztiak ezagutzen, LAPAk aholkuak emango dizkio, betetzekoak diren baldintza guztiak kontuan izan ditzan, laneko ekipamenduak (makinak) erosteko. Garrantzitsua da fase horretan gertatzea enpresaburuaren eta prebentzio-zerbitzuaren arteko komunikazioa, hau da, behin betiko eskaera egin aurretik. Horrela, prebentzio-zerbitzuarekin harremanean egonez gero, enpresaburuak ziur jakingo du laneko segurtasunari nahiz osasunari buruzko legezko baldintzak bete direla.

Era berean, enpresaburuak kontsultatu beharko du langile edo haien ordezkariekin laneko ekipamendua (makina) erosteko erabakia, kontuan hartuz haien segurtasunean eta osasunean erosketak horrek izan dezakeen eragina.

5.- LANEKO SEGURTASUNARI ETA OSASUNARI BURUZKO BALDINTZA GEHIGARRIAK

LAPari galdetu ondoren, bi egoera gerta daitezke:

- *Lehenengoa:*

Laneko arriskuen prebentziorako antolakuntzaren aholkuak jaso ondoren, enpresaburuak egiaztatuko du kontuan izan dituela laneko segurtasunari eta osasunari buruz eskatutako betekizunak eta, ondorioz, erosketarekin jarraituko du.

- *Bigarrena:*

Laneko arriskuen prebentziorako antolakuntzaren aholkuak jaso ondoren, enpresaburuak egiaztatuko du ez dituela kontuan izan laneko segurtasunari eta osasunari buruz eskatutako baldintza guztiak; beraz, ezaugarriak eta kokalekua aztertuko ditu, kontuan hartuz eskatutako legezko baldintzak. Horiek ezarri ondoren, berriz ere aholkua eskatuko dio laneko arriskuen prebentziorako antolakuntzari, guztiak kontuan hartu dituela ziurtatzeko. Laneko arriskuen prebentziorako antolakuntza ados baldin badago, erosketarekin jarraituko du.



6.- BEHIN BETIKO BALDINTZA-AGIRIA

Baldintza-agiria funtsezko dokumentua da, bertan zehazten baitira laneko ekipamendua (makina) erosteko baldintzak. Agiri horren bitartez, makinak zein baldintza bete behar dituen zehaztuko dio erosleak fabrikatzaileari edo fabrikatzaileei.

Enpresaren beharretara egokitu beharko da laneko ekipamendua (makina). Adibidez, makina erabiltzeko modu guztiak kontuan hartzen baditugu, etorkizunean ez da osabidezko neurririk ezarri beharko. Osabidezko neurri horiek, sarritan, istripuak eragin ditzakete.

Enpresaburuak eros ditzakeen laneko ekipamenduak (makinak) bi taldetan bana daitezke: hainbat makinaz edota quasi-makinaz osatutako multzoak, eta “katalogoko” makinak.

Hainbat makinaz edota quasi-makinaz osatutako multzoak:

Segurtasun eta osasun baldintzak makina diseinatzeko fasean betearaztea errazagoa eta merkeagoa da, behin muntatuta dagoen makinan ezartzea baino.

Fabrikatzaileari baldintza-agiria aurkezteak ekar dezake haren eta gerora erabiliko duenaren arteko harremana sortzea, makina segurua fabrikatzeko konpromiso handiagoa onartzea eta lortzea erraztuko duena.

Hainbat makinaz edota quasi-makinaz osatutako makina konplexuei dagokienez, oso argi utzi behar da nor arduratuko den makinaren atal guztiak lotzeaz eta, ondorioz, nork egingo duen makinaren CE marka, nork emango duen onespren-adierazpena eta nork idatziko duen jarraibide eskuliburua. Baldintza-agirian jaso daiteke aipatu berri dugun konpromiso hori.

“Katalogoko” makinak:

Katalogoko makinetan, baldintza-agiria sinpleagoa da; alabaina, segurtasunari eta osasunari buruzko xedapenak zehaztu beharko genituzke (CE marka, onespren-adierazpena, jarraibide eskuliburua...).

Edonola ere, makina erabiltzeko mugak zeintzuk diren argi utzi behar dugu. Horrela, etorkizunean ez da sortuko makinaren funtzionamenduari buruzko gatazkarik, hau da, makina erabiltzeko moduei, materialei, abiadurei, osagarriei eta abarri buruz.



7.- LANEKO EKIPAMENDUA HAUTATZEA

Laneko ekipamendua erosi aurretik, makinak laneko segurtasunari eta osasunari buruzko baldintza guztiak betetzen dituen ikusi beharko dugu. Enpresaburuak, beraz, honako hauek egiaztatuko ditu laneko ekipamendua (makina) aukeratzeko garaian:

- Aplikatu dakiozkeen legezko edota arauzko xedapenak beteko ditu.
- Kontuan hartuko ditu makina horren bitartez egingo den lanaren baldintza eta berriazko ezaugarri guztiak.
- Kontuan hartuko ditu langileen segurtasun- eta osasun-arriskuak, bai laneko ekipamendua (makina) erabiltzean sortzen direnak bai inguruneak ekar ditzakeenak.

8.- PREBENTZIO-DELEGATUEI JAKINARAZTEA

Enpresaburuak alde aurretik jakinaraziko die langileei edota haien ordezkariari laneko ekipamendua (makina) erosiko duela. Informazio hori arrazoizkoa izango da hartutako erabakiek langileen segurtasun eta osasunean duten eraginaren neurrian.

9.- LANEKO EKIPAMENDUAREN (MAKINA) KOKALEKUA PRESTATZEA

Makina behin enkargatu ondoren eta jakinda hura noiz ekarriko duten, enpresaburuak makinaren kokalekua prestatu eta, hala badagokio, egokitu beharko du.

Lan hori errazagoa izango da makinaren produkzio-ezaugarriak eta kokalekuaren beharrak jakin eta aztertu baditugu. Horiek guztiak, alabaina, makina hautatzeko fasean izan behar ditugu kontuan (2. puntuan).

Gerta daiteke enpresako beste makina edota biltegi batzuk lekuz aldatu behar izatea makina berriari lekua egiteko. Hori behar bezala tratatuko eta aztertuko dugu, arrisku-egoerak saiheste aldera.

Makina baten ordezkari beste bat jartzea besterik ez bada, prozesu hori guztia errazagoa izango da.



10.- LANEKO EKIPAMENDUAREN (MAKINA) HARRERA

Laneko ekipamendua (makina) iristen denean, bi helburu hauek bete behar ditugu:

- Hari aplikatu dakizkiokeen arauak begiratzea eta egiaztatzea.
- Baldintza-agirian zehaztutako klausulak egiaztatzea.

Egiaztapen horiek egiteko, beharrezkoa izango da, gai honetan adituak diren aldetik, enpresako prebentzioa antolatzeaz arduratzen diren teknikariak bertan egotea eta laguntza ematea.

Laneko ekipamendua heltzen denean, makinaren segurtasun-agiriak aztertu eta egiaztatuko ditugu. Agiri horiek erabiltzailearen hizkuntzan egon beharko dute:

- CE onespenezko adierazpena: Haren edukia aztertuko dugu, bai eta aipatu agiri hori zuzena den eta legezko baldintzak betetzen dituen ere.
- Jarraibide eskuliburua. Jarraibide eskuliburuaren edukia aztertuko dugu, eta legez ekarri behar dituen agiri guztiak dauzkan egiaztatuko.
- Agiria ez bada ere, makinak CE marka duela egiaztatuko dugu.

11.- LANEKO EKIPAMENDUAREN (MAKINA) HASIERAKO EGIAZTAPENA

Laneko zenbait ekipamendutan, instalazio baldintzek makinaren segurtasunean eragin dezakete. Horrelakoetan, beharrezko segurtasun-neurriak ezarri eta hasierako zenbait egiaztapen egingo ditu enpresaburuak, betiere, makina instalatu ondoren eta hura lehenengoz erabili aurretik.

Kontuan hartu beharko dira jarraibide eskuliburuan muntatzeari eta martxan jartzeari buruz emandako azalpenak. Produkzio-serieak egiten hasi aurretik, halaber, hainbat proba funtzional egin beharko dira makinaren funtzionamendua egiaztatzeko.

Makinaren hasierako egiaztapena egiteko unean, laneko arriskuen prebentzioa antolatzeaz arduratzen diren teknikariek egon beharko dute bertan, makinak egoki funtzionatzen duen aztertu eta egiaztatzeko.



12.- ARRISKUEN EBALUAZIOA EGITEA. PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA

• Arriskuen ebaluazioa:

Enpresako produkzio-jardueran laneko ekipamendu berria (makina) sartzean, berriz ebaluatu beharko ditugu makina horrekin lotura duten lanpostuetako arriskuak; legez horretara beharturik baikaude. Horiek horrela, arriskuen ebaluazioa eguneratu eta aztertu beharko du enpresaren laneko arriskuak prebenitzeko taldeak.

• Prestakuntza eta informazioa:

Laneko ekipamenduak zuzenean erabiliko dituzten langileek prestakuntza nahiz informazio egokia dutela bermatu behar du enpresaburuak.

Prestakuntza teorikoaz gain, langileek praktikak egin beharko dituzte makinarekin; batez ere, trebetasun nahiz ohitura seguruak hartu behar badira makina erabiltzeko.

Ahal dela, idatziz emango zaie informazioa langileei. Horretarako, kontuan izan beharko da fabrikatzaileak jarraibide eskuliburuan idatziz emandako informazioa. Hortaz, CE marka duen makinaren jarraibide eskuliburuak makina egoki instalatzeko, erabiltzeko eta mantentze-lanak segurtasunez egiteko informazioa ekarri beharko du. Arriskuen ebaluazioan jasotako informazioa osatzeko erabili behar dugu aipatu informazio hori.

Honako hauek azaldu behar dira informazioan:

- Lanean aritzean langileak izan ditzakeen arriskuak.
- Arriskuak ezabatzeko edo murrizteko asmoz laneko ekipamenduak dituen prebentzio-neurriak eta, hala badagokio, nola erabili behar diren babes-dispositiboak.
- Makina martxan jarri edo hura erabiltzen hasi aurretik eta horren ondoren, zer egiaztapen edota eragiketa gauzatu behar diren.

Emandako informazioa ondo ulertu dutela ziurtatzeko, erabiltzaileen hainbat faktore izan behar ditugu kontuan, adibidez: hizkuntza.

Zenbait makinatan, baliteke fabrikatzaileak berriazko prestakuntza eman behar izatea. Halaber, baliteke makina erostearekin batera kontratatu edota eskaini izana prestakuntza hori. Makinaren funtzionamenduari buruzko prestakuntza izan ohi den arren, hura segurtasunez erabiltzeko azalpenak ere ematen dira gehienetan. Fabrikatzaileak emango duen prestakuntzaren edukia ezagutu behar da laneko arriskuen prebentzioa antolatzeke orduan.



13.- MAKINA ERABILTZEN HASTEAK

Aurreko ataletan adierazitako guztia bete ondoren, makina ekoizpen-martxa normalean erabiltzen hasteko unea dela erabakiko du enpresaburuak.

Eta, langileen esku laneko ekipamendu segurua jarri duela erakusteko, makina hautatzeko faseei buruzko agiri bat egitea komeni da. Bertan jaso ditzake, besteak beste, ekintzak, datak eta esku hartu dutenen sinadurak.

Aipatu agiri hori, bidenabar, honako hauen guztien egiaztagiritzat har liteke: langileei kontsulta egin eta haiek parte hartu izana, arriskuen ebaluazioa eguneratzea eta laneko ekipamenduaren hasierako egiaztatzea, laneko ekipamendua hartzean egindako egiaztapena.